



Austeritate balioa azteretzerakoan, Arizmendiarrietaren pentsamendu muineetan kokatzen gara. Ez da proposamen moral bat, ekonomiko baizik. Benetako eraldaketa bat abian jarketzo, baliabide ekonomikoak behar ditugu. Nahi dugun mundo berriaren oinarriak jartzeko, geure kapitalak behar ditugu eta horretarako bide bakarra dagokio langileriari: eguneroko kontsumoa murriztuz, bere lansaritik aurreztea.

Mundu berri bat sortzeko, pertsonen portaera eta izaera aldatu behar da. Mundu eta gizon berria, biak erabat loturik datoz.

“Ezinbestekoa da aurreztean oinarritutako austeritatea, haintzat hartzeko moduko garapen harmonikoa lortu ahal izateko” (516)

Aurrexeago, honakoa hau diosku: *“Autofinantzaketa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da enpresaren dinamika eta asmo handikoagoak, halaber, bete ahal izango dituen helburuak. Sakrifikatzen dugu oraina etorkizunean, pertsona kolektibitatean”* (521)

Eta beti bezela, antolaketa instituzionalizatu bat eskatzen digu: ez da aski, norberak bere erara, banaka, erabakiak hartzea. Langileon proiektu amankomuna, honako tresna hau dukegu: *“Kreditu kooperatibak berebiziko garrantzia dauka mugimendu kooperatiborako. Hori da langileek daukaten bidea mugimendu kooperatiboari laguntzeko”* (518)

Inguruan nabarmentzen zaizkigun balio eta portaerak, gure etsairik gogorrenak bilakatzen dira. Bere hitzetan: *“Erosotasuna, nabarmenkeria, luxua eta irioatea garapenaren emaitza dira, garapena gizaaurrerabiderako eta ongizaterako bitarteko eta abiapuntutzat hartu beharrean helburutzat hartzen denean”* (512)

Dudarik bagenu, bere hitz irmo eta argiakoak irakur ditzakegu: *Guri beldur handiagoa eragiten digu, etorkizun kooperatiborako, kooperatibistek koiuntura bakoitzean kontsumora bideratzen dutena zuhurra litzatekeena baino gehiago izatea. Inguratzen gaituen mundu kapitalista lasai geratuko da kooperatibistok pribilegiatuen bizimodua egiten dugun egunean, zeren eta hori hala bada, gure inbertsio tasen murrizketa edo gure enpresen ahultasunak adieraziko baitute hedatzeko eta borrokatzeko daukagun indarra murriztu egin dela, eta, aldi berean, gure elkertasunak langile munduarekin izandako lotura ere hautsi egin dela.* (509)

Gizarte osoaren aurrera pauso bat behar dugiu, berari dagokion erantzunkizun bat delako:
“Garabidean den gizarte baten jauzia hutsean gera daiteke aurrezkerik eta inbertsiorik egon ezean”
(524)

Horrela bai, geure buruaz harro eta langile/enpresari bezela dagokigun lekua aldarrikatu eta eska genezake: *“Langile Enpresaburuok ohorezko lekua izan dezakegu eta izan behar dugu herrialdearen garapenean, arazoan gestioan eta gidaritzan; batez ere, garbi utzi behar dugu gaur egun Langileek heldutasuna daukatela eta beharrezkoa dutela emantzipazioa: ezin da atzeratu esanez adin txikikoak direla edo ez daudela prestatu. Lana da beti egunean dagoen blasoi bat, indar bat”* (527)